



FUTBOLA ETXEKO IZAR

Futbol jokalaria profesionala izan zen Tomas Orbegozo. Haren bidea urratu nahian dabilta Jon eta Mikel Orbegozo ilobak 04

MILAR LARRAMENDI

URTE BERRI ON

ITZALALDI ANALOGIKOA GAINEAN DAUKAGU
AURREA HARTU IEZAIOZU
TDT-dun TELEBISTA EROSTEKO AUKERA APARTA



SAMSUNG 19"
933

209,95€



TOSHIBA 26"
AV615

359€



PHILIPS 23
T221

279€



SAMSUNG 37"
B 553

599€



PANASONIC 42 S 10

799€



LG 42 PQ 2000

599€

EGIN EZAZU ZURE ERRESERBA AURREKO MODELO HAUEK
DENAK DUTE TDT-a BARNE



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 113.a (2010eko urtarrila)

Urtea. XII.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730 792 /

oalegria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. A. Agirrezabala

Web orrialdea.

www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde

publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Uztarriak
Bai Euskarari



Oharra. Uztarrria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkarian
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik

2010EKO URTARRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Osasuntsu elikatzen zarela uste al duzu? **13**

mamia

Klik! Xoxote elurrak zurituta, irudi ikusgarriak **16**
Presoen senideak. Ukimenezko miaketez aritu dira Jauregi eta Galarraga **20**

Transplantea. Atcore elkartez eta organo emailatz, Jose Antonio Aranagarekin **24**

jakiteko

Festaren herri izaera. San sebastianeze eta danborradarako karrozetaz solasean Edertikoekin **34**



20



34


Ba al dakizu Eusko Jaurlaritzak Alzaga baserriari monumentu izendapena emango dioLa? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian



943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldea orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
106.400 euroko aurrekontua
du Uztarriak 2009. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria (Uztarriak hurrengo hilabeteetan liburuxka gehiago aterako ditu)

Gola begiz jota

Futboleant aurrelarien egitekoa gola sartzea bada, ondo asko betetzen dute lana Orbegozo anaiek. Zaharrena Amorebietan dabil; gaztea Sansen. 🖋️👁️ Ainitze Agirrezabala

Azkoitia pilotarien seaska bada, Azpeitia futbol jokalariena dela esatea, ez da gehitxo hitz egitea. Ume-umetatik baloiari aurreneko ostikadak eman eta, eskola kirolean lagun artean oinetakoak urratu ostean, herriko Lagun Onak futbol taldean zailtzea dute askok helburu; nahiz eta gutxi batzuk lortuko duten goragoko mailerako jauzia ematea. Kontatzen hasita, ordea, lana egitearen poderioz Azpeitiko harrobiak hainbat futbol jokalaria on eman ditu.

Orbegozo anaien izena bolo-bolo dabil azken aldian. Biak Espainiako Hirugarren Mailan ari dira jokatzeko. Jon, zaharrena, 25 urtekoa, bizitza guztian Lagun Onaken jokatu ostean, aurre Amorebietara joan da. Anaia gazteak, Mikelek, 20 urte ditu eta Realean darama bizitza osoa. Eskoletatik eraman zuen talde donostiarrak eta orain Sansen dihardu. Gola dute begiz jota biek, eta asko dira goragoko mailetan jokatzeko aukerak ikusten dizkietenak. Goragoko taldeetara igotzeko “zurrunburuak” egonagatik, “horiek benetan egi bihurtzeko orain artean bezala lanean segitu beharra” dagoela adierazi du anaietan zaharrenak.

Futboleant aurrera egiteko urte erabakior gisa hartu du Jonen aurtengoa. “Bai talde mailan, bai bakarka, Lagun Onaken bi urte oso onak eginagatik, aurrera begira ez nuen zerarik ikusten. Hirugarren Mailako ia talde



Bi anaiek elkarren kontra jokatu zuten partida.

||| PITXITXIAK |||||

Jon. Bederatzi urtez, Lagun Onak-eko pitxitxia izan zen eta Goleatzaile Onenaren Saria eskuratu. Iaz, Lagun Onak-ekin 19 gol sartu zituen. Aurtengoan, dagoeneko, bederatzi gol sartu ditu arerioen atzetan.

Mikel. Infantiletatik hasi eta jubenilak arte urtero bera izan zen taldeko pitxitxia. Iaz ez zuen minuturik eduki zelaian; baina duela bi denboraldi 28 gol sartu zituen. Aurren, dagoeneko hamar gol sartu ditu.

guztiak deitu zidaten aurre taldez aldatzeko. Amorebieta izan da talderik interesatuena eta baldintzarik onenak jarri zizkidana eta hara joatea erabaki nuen”. Betiko bere taldea izanda, Lagun Onak uztea “asko kostatu” zaiola dio, baina Bizkaian Hirugarren Mailari “garrantzia handiagoa” ematen zaiola eta, aurrera egiteko urrats hori eman beharra zegoela adierazi du: “Bizkaian oihartzun handiagoa du Hirugarren Mailak. Gipuzkoarekin alderatuta prentsak-eta jarraipen handiagoa egiten dute han. Gehiago ikusten zaituzte. Beste mundu bat da”. Oraingoz, bere lana, golak sartzea, ondo ari da betetzen.

Helburu beretsuak

Bi anaiek “antzeko helburuak” dituztela esan daiteke; “maila hobetzea” dute jomuga, eta horretan ari dira saiatzen. Anaia zaharrena- ren esanetan, beraien taldeak “lehenengo lau postuetan sartzea” du xede, igoera fasea jokatzeko: “Taldea helburu hori du markatuta. Aurren, gainera, Amorebieta taldeko zuzendaritzak esfortzu handia egin du talde lehiakorra egiteko eta sailkapenean aurrenak goaz”. Mikelek adierazi duenez, beraien helburua ere “2. B Mailara igotzea” da, “gure taldea ez da-eta Hirugarren Mailakoa”.

Oraindik ere, hitz egitean nabari zaio Joni iaz Lagun Onak 2. B. Mailara igo ez izanaren arantza barruan duela. “4 eta 1 gindoazen



Jon, Tomas eta Mikel osaba-ilobak, Lagun Onak-en Garmendipeko zelaian.

irabazten [Torrelavegar]. 2. B. Mailan geunden, baina hiru minututan ihes egin zigun igorak, 43. eta 46. minutuetan gol bana sartu baitziguten". 4-3 irabazi arren kanporatuta geratu zen Lagun Onak. "Liga irabazi eta ia 2. B. Mailara igo ginen baina, hala ere, inori ez zitzaion 2. B. Mailan jokatzeko aukerarik heldu. Eta nik uste dut Lagun Onaken badaudela, entrenatzailearengandik hasita, 2. B. Mailan aritzeko gaitasuna duten jokalaria. Bizkaiara meritu gutxiago egindako makina bat jokalaria joan dira aurren. Eta ni aurren hori ari naiz lehenengo pertsona bizitzen".

Bataren eta bestearen bertuteak

Aurrelariak izanik, jokatzeko era beretsua dute biek. Mikel "jokalaria osoa" dela dio bere anaiak, Jon: "Oso mugimendu onak ditu eta gol usain handia. Errematea da bere ezaugarri nagusia. Hori bai, zelaian odol bero pixkat falta zaio, malizia gehiago. Baina hori urteekin ikasten da, defentsek emango

dioten egurrarekin". Mikelek ere hitz onak ditu anaia zaharren bertuteak aipatzerakoan: "Jokalaria indartsua da. Zelaian asko mugitzen da, bai erasoan, bai defentsan. Bizkarezka ere aurrelari bezala mugimendu onak ditu eta goleatzailea da. Taldean Jon bezalako jokalaria asko eskertzen dira. Futbola, ordea, gehiegi bizitzen du eta askotan gauzei behar baino buelta gehiago ematen die".

Maila hobetzeko ahaleginean, mutil saiatuak direla bistan da. Futbolak "sakrifizio handia" eskatzen duela dio anaietan zaharrenak: "Azkoitiko Juaristi enpresan egiten dut lana eta astean lau egunetan arratsaldeko 20:00etarako Amorebietara joaten naiz entrenatzera. Lau lagun joaten gara elkarrekin: Elgoibarkoa, Eibarkoa, Zarauzkoa eta ni, azpeitiarra. 23:00ak aldera etxera ailegatu, afaldu eta hurrengo goizean 08:00etarako sartzen naiz lanera. Gogorra da, baina ondo moldatzen naiz eta betetzen nauen gauza da. Ez da derrigortutako zerbait".

Gazteena Donostian, Alde Zaharrean, bizi da taldeko zazpi mutilekin. "Goizero entrenatzen dugu; astean behin, goiz eta arratsalde. Etxera bueltaka ibili beharrean Realak jarri digu etxea eta han pasatzen dut astea. Erosoagoa da. Lo bakarrik egiten dugu han, otorduak egitera erresidentziara joaten baikara". Gauza guztiek bezala futbolar "alde onak eta txarrak" dituela dio: "Zeozer egin nahi duenak, saiatu eta lana egin behar du gogotik. Niretzako lehentasun osoa du futbolar eta gero geroak". Magisteritzako Lehen Hezkuntza ari da ikasten Donostian: "Aurren azken urtea dut eta; bukatzean, entrenatzailearen karneta ateratzeko asmoa dut".

Jon eta Mikel "futboleko jokatzeko gogoarekin" ikusten dituela adierazi du haien osaba Tomas Orbegozo futbol jokalaria ohiak: "Futbola bizi egiten dute eta gaur egun horrelako gazte gutxi dago. Ikaragarritzko ilusioa eta motibazioa jartzen dituzte eta horiek beharrezkoak dira. Lesiorik izaten ez badute eta▶

►partidak jokatzen badituzte, golak sartuko dituzte". Ilobek jokatzen dituzten partidetara "joan zalea" da Tomas: "Asko segitzen ditut. Telebistan futbola asko ematen dute, eta tar-tean behin hauek ikustea ere ondo etortzen da. Bestela, etxekoez gain, ez naiz futbol partida asko ikustera joatekoa".

Jonen esanetan, osaba beraien partidak ikustera joatean "beti analizatzen" du jokoa: "Osabak, ordea, futbola ikusteko modua le-hengo garaikoa du. Eztabaidan ibiltzen gara". Sistemak eta futbola bera "aldatuz" doazela erantzun dio osabak ilobari: "Zelaian duten errendimenduaz, jokatzeko moduaz eta be-raien pertsonalitateaz egiten ditut kritikak. Ez naiz sistema eta eskemekin sartzen. 'Gehia-go egin behar duk borroka edo malizia gehia-go izan behar duk zelaian', esaten diet. Kriti-kak zentzu horretan bakarrik egiten dizkiet". Halakoetan, beteranoarengandik aholkurik ere ez da falta izaten. Jonen esanetan, osa-bak eman dien aholkurik onena, "'aurrelaria-rengan balio duen gauza bakarra gola duk'" izan da: "Eta, denborak arrazoi eman dio". "Hemen denboraldia bukatzen denean au-rrelarien golak kontatzen dira", dio Tomasek: "Aurrelari bati egingo dioten lehenbizko gal-dera 'zenbat gol sartu dituk?' izango da; eta ez, zenbat partida on egin dituen. Aurrelariak beti sartutako golengatik sailkatzen dituzte".

Orbegozoren bi bizioak

Aitortzeko modukoak, behintzat, bi bizio ba-ditu Tomas Orbegozok: "Futbola eta kotxe-ak". Kirola egiten jarraitzen du Realeko bete-ranoekin: "Urtean hogeit bat partida jokatzen ditugu". Bestela, luxuzko autoen salmentan dihardu: "Betitik gustatu izan zaizkit kotxeak eta futboletik erretiratu eta Azpeitira buelta-tzean negozioa jarri nuen. Pentsa, neronek orain arte 33 kotxe eduki ditut. Ikaragarri gus-tatzen zaizkit".

Osaba-ilobak elkarri zirikatzen abila dira. "Hauen egia da orain, nik ez diedala ezertan irabazten" dio Tomasek: "Alegia, ez ditudala ezertan eraisten. Baina, gaztea nintzela ha-rrapatu izan banitu, hauek biak batera jango nituzkeen!"*



1. Real Madrileko aurrelari Hugo Sanchezekin. Orbegozok Xixongo Sporting-en jokatzen zuen. **2.** Real Madril 4-1 garaitu ostean Superkopa irabazita, Atotxan. **3.** Maradonarekin lehia bizian, 1982. urtean.

Zelaian, lagunartean, ezizena 'Turbo'

|||Umetatik izan du futbolerako sena Tomas Orbegozok. "Futbolean jolastu nahi genuenean zelaia joan, porteriak egin eta moldatzen ginen. Hasieran etxean errieta egiten ziguten, 'orain ere nondik hator?' esanaz. Izan ere, zapatilak puskatuta eta galtzak zikinduta eramaten genituen".

Garaia asko aldatu direla dio: "Asto eta idi probek... futbolaren aldean indar handia zuten. Futbolean nabarmentzen zena Lagun Onaken hasten zen. Semea jokalar on zatorrela eta, gurasoen belarrietara kanpotik horrelako kontuak iristean, orduan izaten genuen haien babesa".

Gaur egun ume asko futbolean "norbere kabuz, barrutik aterata baino, beraien gurasoek bultzatuta" hasten direla dio: "Egun, deskuidu handia dago horretan".

Hamasei urterekin Lagun Onaken hasi

zen eta hamazazpirekin Realera, jubeniletara, joan. Hamazortzirekin Sansera. "Han bi urtez aritu ostean, soldadutzara joan ginen, taldeko disziplinak aginduta, eta bueltan Realera igo ninduten". Hogeit urterekin egin zen profesional. Bost urtera, kontratua bukatzean, Realarekin "ekonomikoki adostasun batera heldu ez" eta Xixongo Sportingekin fitxatu zuen: "Koloreak koloreak dira, baina hiru aldiz gehiago eskaini zidaten". Gero, Xerez taldean beste lau bat urte egin zituen. "33 urterekin San Lucar de Barramedako talde batean urtebete egin eta Azpeitira bueltatu ginen".

Erdian eta atzean jokatzen zuen Orbegozok: "Teknika handirik ez nuen, baina fisikoa, agresibitatea, abiadura eta jenioa bai. 'Turbo' deitzen zidaten zelaian".

Amenabar
D E N D A
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

**lentzeria
mertzeria**
jose artetxe, 16
nabar

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

JAZKI moda
Jose de Artetxe 10
Tlf: 943 81 17 69

Urteroko desioa

U

rte berri bati hasiera eman diogu, 2010. Ez da nolanahiko urtea azpeitiarrontzat, gure herriaren sorrera juridikoaren 700. urteurrena gogora ekarriko baitugu. Beti bezala, iritzi desberdinak plazartuko dira, baina ziur denon iritziek izango dutela kabida gure herrian. Azken finean, iritzi desberdinak izateak ez du esan nahi, nahiz eta munduaren funtzionatzeko modua ikusita beste zerbait dirudien, ezin dela bake giroan desberdin pentsatu eta bakoitzak bere helburuak lortzen saiatu.

Hain zuzen ere, bakean bizitzea da beti ere gizakiok barnean daramagun desio bat eta ia beti elkarri opa dioguna urte berriari hasiera ematerakoan. Bakean bizi eta bakoitzak bere helburuak defendatzea uztartzea posible dela defendatu eta frogatu zuen pertsonaia historiko bat ere omenduko dugu urteko lehen hilabete honetan. Hain zuzen ere, Mahatma Ghandi da pertsonaia hori eta bera erail zuten egunean, urtarrilaren 30ean, ospatuko da urtero bezala Bakearen Nazioarteko Eguna. Egun horretan John Lennon abeslari ospetsuak konposaturiko *Imagine* kanta erabiltzen da mundu baketsu bat posible denaren ereserki bezala.

Baina Ghandiren bizitzak beste lezio batzuk ere ateratzeko balio du. Hala nola, posible dela herri proiektu desberdinak, nahiz eta uztartu ezinak diruditen hasiera batean, era baketsuan defendatzea. Gaurko munduari begiratuta, ez dirudi posible hau egiazkoa izatea; baina India herrialde burujabe eta munduko eszenatokian gero eta garrantzia gehiagorekin agertzea, Ghandiren ametsa posible denaren frogak ukazina da. Berak, herriko gidari bezala, India burujabe izatera eramanean zuen borroka baketsua gidatu zuen XX. mendeko lehen hamarkadetan.

Aldi berean, Ghandiren borrokatik atera daitekeen beste lezio bat munduan oraindik konpondu gabeko arazoena da. Nahiz eta NBE (Nazio Batuen Erakundea) hor izan,



markel mendizabal


Herritar berdinen etorkizuna hobetzeko, ea herri proiektu desberdinak uztartzea lortzen dugun

giza eskubideen urraketa bortitzak gertatzen dira oraindik gaur egun ere munduan. Ea urtarrilaren 30ean denok hausnarketa bat egiten dugun pertsonaia historiko honen bizitzatik ateratako lezio hauei buruz.

Proiektu desberdinak uztartzea

Azpeitiak ere bere 700. urteurrena beteko du bere herri izaera juridikoa onartu zenetik. Gure herri honek, beraz, badu bere bidea egina jada, eta bide horretan proiektu desberdinak egon dira gure herriaren etorkizun onena bilatuz. Ea oraingoan herri proiektu desberdinak uztartzea lortzen dugun, denek herritar berdinen etorkizuna hobetu nahi baitute. Eta ea uztartze hau era baketsuan egitea lortzen dugun, Ghandiren arrastoa jarraituz, gure herriari etorkizun oparoa bermatuz.

Ziur nago posible dela eta denok izango garela gai, gure herriarentzat hain urte berezia den honetan, ahalegin berezi bat egiten herri proiektu integratzaileak eskaintzeko herriari, merezi du-eta beste urte bat gehiago beteko duen Urola bailarako txoko berezi honek.✕



Xanti.R

12 aleak irenstea pentsatuak

Atzo zela dirudi, hamaikagarren mahats alea kontrako eztarritik joan eta hamabigarrena garaiz eztarritzeko ahalgintetan nenbilen gaua. Eta konturatzerako, kopa xanpainez betetzen gaude berriz, telebistari begira eta halako sentimendu nahasketarekin barnean. Urtean atzera begiratu eta gertatu zaizkigun gauza onei eta txarrei begiratu botatzen. Eta geure buruari esanez, "gaur hemen bagaude, ez zaigu hain hain gaizki joan". Zenbaki bikoitiak gustuko dituen gustura, 2010 bikoitia, borobila; bakoiti-zalea, berriz, 2011ean sartzeko desiatzen. Kanpai hotsekin batera mahatsak —edo mandarina xerrak, platano puskak, azeitunak edo mahatsa gustatzen ez zaionak erabil dezakeen edozer— eskuetan, xanpain kopa mahaietan zain. Zein larri dabilen ekilibristarik onena ere hogeita hamar segunduz eskuineko hankaren gainean, kinkirrinean, aguantatzen eta joel, nola pikatzen duten txinoko kulero gorri madarikatu hauek. Baina... urte berri on denoi!

2010. Urte bat gehiago. Urtebete zaharra goa da historia. Atzera begiratu eta zenbat aldaketa izan dituen munduak! Aurrera begiratu eta zenbat aldaketa behar dituen! Norberarengandik hasita. 2010ean egin behar dituzdan aldaketak, hauek: erretzeari uztea, ingurukoak gehiago zaintzea, gela txukunago edukitzea, lanak garaiz entregatzea eta haie-taz gozatzea, zabor gutxiago sortzea, gehi-ago irakurtzea, askoz ere gehiago abestea, barre gehiago egitea eta, behingoagatik, lentejak kozinatzen ikastea. Hankak lurrean mantetzea eta burua lainoetan. Ametsei hel-
tzea eta lortzera egitea.

Ziur nago sareko horoskopoei inoiz baino bisita gehiago izango dituztela egunotan. Datorren urteak zer ekarriko dion jakin gura duenak horrelakoetara jotzen du maiz. Izarren patuan sinistea libre da; nire metodoa: ona bada sinistu eta txarra bada, "a ze tontakeriak!". Horrela beti daukat gustuko etorki-



||||| **olatz prat** |||||

||| Egunero landu beharreko baratzea da zoriontasunarena. Aleak erein eta fruitua jaso

zuna. Seguru nago, nolanahi ere, gure amestek eta, batez ere, ekintzek, eragin handiagoa dutela gure patuan, bai behintzat gertuko etorkizunean. Zoriontasuna ez baita, agian, noizbait, zerutik eroriko zaigun zerbait, egunero landu beharreko baratzea baita zoriontasunarena. Aleak erein eta fruitua jaso, horixe da zoriontasuna, horixe bizitza.

Bihar gaur da

2000. urtean munduak amaitu behar omen zuen. Baina ez zen amaitu. Gero, 2006ko ekainaren 6an ere deabruaren suak mundua suntsitu behar omen zuen; baina, ez dakit ba, gaizki etorriko zitzaion agian, nik dakidala hemen jarraitzen dugu behintzat. Dena den, azpeitiarrok, mundukideok, aprobetxatu 2010a eta 2011a, 2012.ean bai, benetan, denok desagertuko garela ziurra da-eta. Bromak broma eta zientziak zientzia, hasi gaurtik denbora aprobetxatzen, hasi gaurtik zoriontsu izaten, ez utzi biharko. Bihar gaur da. ✨



ikasberri k.e. XII. krosa

Federatu maila • Eskolarteko krosa

2010eko urtarilaren 10ean **AZPEITIA** Goenako kanpán



Antolatzailea:

ikasberri
KIROL ELKARTEA

Laguntzaileak:



ORDUA	MAILA	DISTANTZIA
10:15	HELDUAK mutilak	5.700m.....IT+3 IH
	JUBENIL mutilak	5.700m.....IT+3 IH
	JUNIOR mutilak	5.700m.....IT+3 IH
10:45	HELDUAK neskak	2.760m.....2 IE
	KADETE neskak	2.760m.....2 IE
11:00	JUBENIL neskak	4.140m.....3 IE
	JUNIOR neskak	4.140m.....3 IE
	KADETE mutilak	4.140m.....3 IE
11:20	ALEBIN mutilak	1.380m.....1E
	ALEBIN neskak	1.380m.....1E
11:35	INFANTIL neskak	1.890m.....1T+1E
	INFANTIL neskak	3.270m.....1T+2E
11:55	SENIOR-promesa neskak	5.700m.....IT+3 IH
12:20	SENIOR-promesa mutilak	9.160m.....IT+5 IH

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Edukazioz, euskaraz.

Norbera errespetatua izateko, besteak errespetatzea nahitaezkoa da. Dendari honen edukazioa ikusita, aparkalekuan ez diote autorik aparkatuko. 📎 Uztarria

**BEHERA.** Egurra euskarari.

Neguan hotzik ez pasatzeko egurra salgai jarri du enpresa honek. Goxotasunik, ordea, lortu ezin; euskararekin ahaztu baitira. 📎 Uztarria*



Jokin Uranga.

ESANA DAGO

III “BEC-en bizitakoa euskaldun izateaz harro sentitzen garen une hoietako bat izan zen”

JOKIN URANGA

bertsolaria

III “Egindako lanaz ez naiz damutzen; badakigu ez dugula deliturik egin”

TXEMA AUZMENDI

‘Egunkaria’-ko
auzipetua

III “Azpeitiarrak bost badauzka patrikan, bitan pentsatu gabe hamarrekoa erosiko du. Azkoitiarrak, aldiz, nahiago du hirukoa erosi eta bi gorde”

XABIER SALDIAS

abeslaria



kutxa



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Gorri, berde eta txuria: hiru ala zazpi?



aitor zulaika

Urtero legez, abendua iritsi orduko plazaratzen dira zenbait gai gure herrian. Zoritarrez aldaketa handirik jasaten ez duten gaiak; urteen pisuak hauei ez die, hobe esanda ez zien, nonbait, kalterik egiten. Hauen artean daukagu Euskal Herriko selekzioaren ausia.

Urteetan zehar ofizialtasunaren bidean ez da urrats bat bera ere egin, hauteskunde kutsua zuen gabonetako partida salbu. Azken urteotan, aldiz, kirolariak izan dira urratsak egin dituzten bakarrak, hau politikarie gehiegi ez zaielarik gustatu. Zergatik ote? Agian

izena ez zitzaielako gustatu, agian dirurik ez delako lortzen partida jolastu ezean, edo agian zenbaiti aurpegian zeramaten kareta kendu diotelako.

Bien bitartean bai Euskadiko Futbol Federaziotik, baita zenbait politikari eta hedabideen eskutik ere, partida errekuiperatzeko bide bakar bezala futbolariari presio egitea erabaki dute. Jakin badakitenean, ofizialtasunaren aldeko konpromisoak hartzean eta pausoak ematean lortuko dela berriro ere partida jokatzea. Hau da benetako irtenbide bakarra. Aurrerantzean kontu hau konponduko lukeena.

Hala nahi eta eskatzen dugu herritarrok ere. Partida jokatzea helburu bat baino gehiago, ofizialtasunerantz bidean bitarteko bat delako. Edo behar lukeelako, behintzat. Utz deztela, beraz, jokalariei egurra emateari, jendea engainatzeari eta has ditezela lanean!

Nire babesari eta esker ona kirolarie —azken datuen arabera jada 2.000 inguru dira—, aldarrikapena ekintzetara eramaten laguntzearen. Gorri, berde, eta txuri koloreak hiru kolore izan arren, zazpi probintzia errepresentatzen dituztela batzuei gogoraztearen ere bai.✱

IKUSTEKOAK



▲ ONDO ARGIZTATU GABEKO ZEBRABIDEA.

Anbulatorio aurrean, farmazia eta estanko aurreko zebrabidea ez dago batere ondo argiztatuta. Farola ez dago egon beharreko tokian, zebrabidea baino aldamenerago baizik, arrisku handia sortuz. Egunezko zenbait garaitan mugimendu handia egoten da eta joan den azaroan gizon edadetu bat harrapatu zuen auto batek, arratsaldeko zazpiak aldera. 📞 Ainitze Agirrezabala✱

ABENDUKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Joxe Agirrek bat ez, lau bertso

FAVORITOA. Txapelketa honetako nire favorittoa Maialen Lujanbio zen eta berak irabazi zuen. Poz handia hartu nuen berari jantziko ziotela txapel betz handia entzun nuenean. Joxerena zer esanik ez, beti izan da nire favorittoa, duen etorriak ez du amaierarik eta, nola ez, horrelako egun batean eta mikro bat aurrean... Lau bakarik abestuta konformatzen nahikoa egin zuen.



ETA-ri eskaera

INAZIO URIA. Bizitzeko eskubidea guztiok dugun eskubiderik preziatuena da eta Uria familiak exijitzen dion moduan guztiok exijitu beharko genioke ETArri beste inor ez hiltzeko. Gauzak lortzeko eta konpontzeko hain mingarriak ez diren bideak badaudela iruditzen zait.



aitor gorrotxategi



Egunkaria libre

EPAIKETA. Badira urte batzuk auzi hau hasi zenetik eta iritsi da epaiketa garaia, adierazpen askatasunaren urraketa garbi bat ikusten da eta guztion artean esan dezagun 'Egunkaria eta berarekin zerikusia duten auzipertuak libre nahi ditugu'.



Agur jendetsua

JESUSEN ALABAK. Txikitako oroitzapenak datozkit burura, eguneko ordu gehienak ikastetxe honetan, Jesuitinetan, pasatzen baikenituen. Nire irakasleak berarek izan ziren. Pixkana-pixkana denak ari zaizkigu herritik joaten eta hitz hauekin omenaldi txiki bat eskaini nahi nieke Jesusen Alabei, urte askotan egin duten lana eskertuz.

INKESTA

osasuntsu
elikatzen zarela
uste al duzu?

 Ainitze Agirrezabala

ESTITXU ELDUAIEN

32 urte



“Saiatzen naiz denetik jaten, herentziaz kolesterola jaso baitut. Betidanik zaindu behar izan dut elikadura. Kirola ere egiten dut, baita parrandak ere; horiek ere tartean behin egin behar dira, buruko osasunarentzat ona baita”.

XANTI AGIRREZABALA

12 urte



“Potajea baino nahiago dut pasta, baina denetik jaten saiatzen

naiz. Lagunekin kalera irteten naizenean gozokiak jaten ditut. Bizikletan ibiltzeko ohitura ere badut eta dantza eskolan nabil”.

XABIER SANCHEZ

12 urte



“Jatun ona naizela esaten dit amak. Berdura bat edo beste kenduta

denetik jaten dut. Pizzak noizean behin jaten ditut. Bizikletan ere ibiltzen naiz, Oñatz aldera eta”.

MARIJOSE AIZPURU

42 urte



“Ondo elikatzen naiz. Gabonetan neurritz gain jan arren, garbi eta

sano jatea gustatzen zait. Baserrikoa izanda, baratzeko barazkiak, etxeko babarruna eta arrautzak-eta jaten ditut”.

Azpeitian bizi eta erosi

Oso konplexua da publizitatearen mundua; izan ere, iragarki ingenioso bat egiteaz haratago, beste mila aspektu hartu behar dira kontuan. Ez naiz guztiak azaltzen hasiko, alde batetik denak ezagutzen ez ditudalako eta, bestetik, benetan aspergarria izango litzatekeelako artikulua (bai, badakit, seguruenik baita bestela ere). Baina, diru asko duenak, publizitatea egiterako orduan, gutxi duenak baino abantaila gehiago dituela jakiteko, ez dago Joseph Goebbels izan beharrik. Jakina, horrekin ez dut esan nahi diru gutxiarekin publizitate kanpaina on bat egin ez daitekeenik.

Herri mailako komertzio txikiek, zein euskarazko hedabide ia gehienek, ez dute publizitate agentzia bat kontratatu eta komunikazio edo marketin plan bat burutzeko adina aurrekonturik izaten. Enpresa dirudunek hala egin ohi dute, eta guk kontrakoa pentsatu arren, eragin nabaria izaten dute geuregan dioxosozko plan horiek.

galdetzen hasita, 2008an Azpeitian ez al da egon kiroletan nabarmendu den emakume bakar bat ere?  Uztarria

Zazpiehun eta hamahiru

Inoiz izan badugu, aspaldi galdu genuen kazetariok enpatiarene zentzua. Ezagunak ez ditugunean, urrun geratzen zaizkigu albisteetako protagonistak. Mundua sailean lan egiten duenak lorik ez du galduko Iraken atentatua dagoen bakoitzeko. Gizartekoa ia automatikoki idatziko du tratu txarrei buruz. Ekonomia sailean ere –hor lan egiten dut–, albiste txarrei buruz aritzen gara hamarretik bederatzitan. Baina lasai joaten gara etxera Hego Euskal Herrian 136.703 langabe daudela idatzita. Sei zenbaki huts iruditzen zaizkigu, bata, hirua, sei, zazpia, hutsa eta hirua, 136.703 familia direla ahaztuta.

Herrian bertan ere egoera ekonomikoa ez da gozoa. 713 azpeitiar zeuden INEMen izena emanda urrian. Ia ia baino %70 gehiago. Kezkagarriena, horien artean ia hirutik batek 45 urtetik gora zituela. Datuak kopuru huts dira, ez dute langilearen ezaugarririk ematen. Esango nuke, ordea, gehienak 20 urte egin aurretik hasiko zirela lanean, oinarritzko



xabier otamendi

Horren ondorioz, Urbil, El Corte Ingles, Decathlon eta horrelako enpresek, beraien guneetan erositaren abantaila miresgarriez hitz egiten digute, mota guztietako komunikazio bideak erabiliz. Ez gara konturatzen herrian ditugun komertzio txikiek eskaintzen dizkiguten abantailaz.

Horregatik, pixkanaka-pixkanaka, herria hiltzen joango dela nabari daiteke. Martxa honetan, azpeitiarrok goizean zentro handi hauetako batean lan egingo dugu, bertan janari azkarreko jatetxe batean bazkaldu eta arratsaldea bertako dendei begira pasatuko dugu. Herrira iritsitakoan bixi-bixi zerbait jan eta ohera joango gara, goizeko zazpietarako lanean sartu behar izango dugulako. Horrela, ez dugu dendarik izango Azpeitian, eta lo egiteko leku soil bat baino ez da izango orain hainbeste maite dugun herria. Horrek, nola ez, Uztarriaren bukaera ere suposatuko luke. Ezin aipatu gabe utzi instituzioen pasibotasuna gai honen aurrean.



miren garate

ikasketak soilik izango dituztela eta informatikari buruzko ezagutzarik ez apenas. Urteetako lanaren ostean erretiro ona lortzea amets, eta orain hori ere zailtzen. Langabe gehienak gizonezkoak dira, 386 hain zuzen. Herriak industriak duen pisuaren erakusle huts da hori, ez lan merkatura berdintasuna iritsi denaren seinale. Azken urteetan poltsikoak eduki bete dituen eraikuntza sektorean ere enplegu asko galdu da.

“Krisia iritsi da” esanda ematen dira azalpen guztiak. Eta egia da iritsi dela. Eta sekulako langile garbiketarako egingo dituzte enpresetan, soldatak murriztu, aparteko ordainsariak kendu... Baina neurri horien artean zenbat izango dira krisiagatik eta zenbat krisiaren izenean? Neurri batzuk hartzea ezinbestekoa izango da agian, baina kasu horietan ere moduak eta moduak daude. Tamalez, kazetariok ez ezik, enpresaburu askok erakutsi dute ez dabiltzala enpatiaz soberan.



andoni salegi

Egunkaria = suntsipen haundiko arma



Lekuz kanpo



|||||||joxin iturriotz|||||||

Eskolako kontserjea naiz. Sei urte bete ditut lan horretan. Baina eskolakoak ez dira nire lankideak. Lankideak direnak afarian elkartzen dira, urte amaieran, eta ikasturte amaieran. Lankide ohiak ere, jubilatua, alegia, han izaten dira. Nik ez daukat aukerarik beraiekin joateko. Egutero zortzi ordu ematen ditut eskolan. Nik ateratzen ditut banatzen dituzten gonbidapen txartelak. Nik fotokopiatzen dut banatzen duten bertsoa. Eta ni ez naiz euren lankidea.

Zoritarrez, Azpeitian talde itxiak izatea ez da nobedade. Bilbon denek jasoko lukete

gonbidapena, nahiz eta gero erdiak joan. Garbitzaileak ere gainontzeko langileekin batera izaten dira horrelakoetan, egurrezko edo metalezko piezarik ez egin arren enpresaren parte direlakoan. Bilbon guztiok gara nor. Azpeitian ez. Azpeitian taldeak itxiak dira. Eta kanpokoari lekua egin beharrean, lekuz kanpo sentiarazten dute taldera hurbiltzen dena. Ezer baino lehen, aurretik hezia. Argi uzten zaio bera ez dela talde horretakoa. Eta hobe duela ahaleginik ez egitea. Erraz ixten ditugu ateak, eta nekez zabaldu bideak.

Eta ez pentsa maistra titulua dutenak des-

berdinak direnik. Eta arrazoa dute gainera, nire kasuan behintzat. Ni ez bainaiz eskolako langilea, ni udaletxeko langilea naiz. Eta badakit udaletxeko langileak bi taldetan banatuta daudela, alde batetik bulegokoak eta beste aldetik brigadetakoak eta garbitzaileak. Talde bakoitzak gutxienez afari bat egiten du urtero, udaletxeak antolatuta. Nik ez. Ni ez bainago ez talde batean, ez bestean. Ez bulegoetan, ez brigadetan. Ni eskolakoa naiz.

Ni, zer esango dizuet, lekuz kanpo sentietzak ez, lekuz kanpo egoteak kezkatzen nau. Zer egingo diogu!*

|||||LIBURU AURRERAPENA|||||||

‘urrestilla: euskal herri baten historia’ (aitor arruti). Enbor bakarreko historia zazpi adarretan; zazpi ataleko urrestilla historia bakarrean.

Bertako baten ikuspegia

Artean mutil koxkorra nintzela, Endaizu mendira joaten ginen aita eta biok udaberriko arratsalde batzuetan, afaldu aurreko ibilalditxo egitera. Ipuinak kontatzen zizkidan aita halakoe-tan, asmatutakoak batzuk, benetan gertatuak beste batzuk. Hala-xe kontatu zidan behin ibilaldi haietako batean:

Aspaldi batean, ba omen zen Urrestillako inguru hauetan eliza berria eraiki nahi zuen jendea. Eliza berria eraikiz gero, ez zuten mezetara Azpeitiraino joan beharrik izango. Ilusio horrek eragin-da, elkartu egin ziren, eta asmoa bete zezaketela pentsatu zuten. Pentsatu eta egin, eliza berria jaso baitzuten neke handiz.

Azpeitiko jauntxoek, ordea, ez zuten gogoko izan hemengo herriarrek egindakoa. Hona etorri eta eraitsi egin zieten eliza eraiki berria. Zaputaldiak ez zituen,

hala ere, herritarrek atzeratu, eta berriro ekin zioten hasierako asmoari.

Hala esan omen zuten: “Azpeitiarrak noiz datozen zainduko diagu Guardi baserritik, eta gainera oraingoan urrezko teilak jarriko zizkioagu elizari”. Hara hor nondik datorren gure herriaren izena: Urrestilla.

‘Ur-iztila’-tik eratorria

Egiazkotzat hartu nuen orduan aita kontatu zidana, eta gure herriaren izena horrelaxe sortu zela

irudikatu nuen garai batean. Gero-rra jakin nuen Urrestilla izena ur-iztila hitzetik eratorria izango zela seguru asko, ez ipuineko urrezko teila haietatik.

Aspaldiko ustea ustel izan zitekeela jakiteak ez zidan aparteko nahigaberik eragin. Izan ere, pixka bat pentsatzen hasita, teila-tuari darion ur-iztilak harrian bezalaxe, Urrestillak ere utzi du bere arrastoa Euskal Herriaren historian. Arrasto hori nolakoa izan den deskribatzeko ahalegina izan da lan hau.

Euskal herri txiki baten historia da Urrestillakoa, Euskal Herrikoa bezalaxe, herri izaera ukatzen zaion jendearen kronika mendez mende pilatua. Beren buruaren jabe izateko aukerarik gabeko herriak izanik, bai Urrestillan eta bai Euskal Herrian ere herritar gehienek euskaraz moldatu izan dute bizimodua historian zehar, eta

gehien-gehienetan euskarak berak eskaini dizkie urrestildarrei eta euskaldunei orobat bizitza gozatzeko eta sufritzeko hitzak.


J. M. Coetzee behin idatzi zue-nez, historiak ez du bizirik gure kontzientzian leku bat egiten ez badiogu. Nik gure herriaren historia biziara nahi izan dut nire kontzientzian, eta sentimendu horrek gidatu dizkit saio honetako pausoak. Hain zuzen, gutako bakoitzaren biziak ingurukoek beren barruan ematen dioten balioa duelako, ez gehiago, ez gutxiago.

Horiek horrela, geure baitan lekua egiten diogun neurrian biziko da bai gutako bakoitza, eta bai maite dugun edozer ere. Urrestillan gertatutako eta kontatutako gorabeherak geure egiten badi-tugu ez dira sekula itzaliko, eta etorkizuneko urrestildarrek jarraitu ahal izango dute Euskal herri txiki baten historia idazten.*

|||||Historiak ez du bizirik gure kontzientzian leku bat egiten ez badiogu

Elurraren xarma

Elurra gogoz bota zuen iragan hilean Xoxote gainean. Batek baino gehiagok eskiatzeko aprobetxatu zuen zuriz estalitako zelaia. 📌 Ainitze Agirrezabala 📍 Bixen Madotz



▼ **IZOZTUTA.**

Bixen Madotz iruindarra eta Olatz Telletxea donostiarra dira Xoxoteko aterpeko arduradunak. Hiru urte bete dituzte aterpezain lanean. Xoxoten elurra egiten duenean argazki kamera hartu eta elurtuta, zuriz estalitako paisaia argazkitan jasotzen dute. Behean, izotz kandelak dituen zuhaitza.



▲ **ELURRAREN LILURA.**

Hamabi mahats aleak jan eta urte berriari ongietorria Xoxote gainean eman zioten Madotzek eta Telletxeak familiakoekin. Beste taldetxo bat ere bertan zen. Argazkian, Xoxote ingurua elurtuta.



▲ **HASERRE DAGO ZERUA.**

Eguraldia horrenbeste belzten denean, elurra mara-mara botako duen seinalea izaten da. Horrelako eguraldiarekin, Xoxote gainean bero usain handirik ez zen izango.

► **30 BAT ZENTIMETROKO ELURRA.**

Iragan hilean, abenduan, egin zuen elurtean 30 zentimetro inguruko elurra neurtu zuten Xoxoten. Halako egunetan, Telletxeak eta Madotzek ez dute kalera jeisterik izaten eta Xoxoteko aterpean bilatzen dute babesa. Argazkian, eskiatzaile bat, barrenean Azpeitia duela.

▼ **IKUSGARRIA.**

Gabonetako postala egiteko argazki berezia da oso. Zuhaitzetako adarrak elurrak estalita ageri dira.



▲ **HIRU URTE XOXOTeko ATERPEZAIN.**

Hilaren 13an hiru urte egingo dituzte aterpeko arduradun Madotzek eta Telletxeak. "Oso gustura" daudela adierazi dute.





▲ **ELUR GOSEA.**

Teleaulkirik ez dago Xoxote gaineen, baina eskiatzaile bat baino gehiago ikus zitekeen elurraz gozatzen. Frantziako edo Espainiako eski estazioren batean ateratako argazkia dela esan, eta batek baino gehiagok sinestuko luke.



▲ **EGUZKIA SARTZEN.**

Zuhaitzen artetik eguzkia nola ezkutatzen den ikus daiteke. Beste argazki zoragarri bat, Xoxote gaineen hartutakoa.✳

Amore eman gabe

Ukimenezko miaketetara behartu nahi dituzte presoek senideak. Horretan ez direla “eroriko” diote Jauregik eta Galarragak, bi presoren amek. 📎📞 Ainitze Agirrezabala

Senide bat etxetik urrun, kartzelan, izateak are gordinagoak egiten ditu urteko zenbait egun. Urtebetetze eguna bezala, Euskal Herriko sukalde askotan Gabonak ez dira izan urteko garairik goxoenak, mahaiaren bueltan familian egon beharreko guztiak ez direlako bildu. “Etxean bilobak daude, nean ospakizun txikiak egiteko motiboa haiek ematen dute”, dio Juanita Jauregik, Xabier Etxeberria *Txapiren* amak: “Olentzeroren opariak direla-eta, umeei ez duzu ilusio horiek kentzerik eta, bai, elkartzeko gara”. “Ospatu edo...” gaineratu du Izaskun Galarragak, Iker Iparragirren amak: “Lehendik datozen ohiturak dira eta gu Zaldibia aldera joaten gara. Gabonei ez diegu ematen halako zerarik, baina familian elkartzeko gara, afaritarako”.

Bisitan joan eta espetxera sartzerakoan ohiko kontrol elektronikoez gain, presoek senideei egin nahi zaizkien ukimenezko miaketen harira hitz egin du Uztarriak Juanita Jauregi eta Izaskun Galarragarekin, Etxeberria eta Iparragirre euskal preso politikoen amekin.

Olentzeroren oparia aita Pakok entregatu zion semeari, Iker Iparragirreri, Gabon egu-

||| AZPEITIARRAK |||||

Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren arabera, 741 preso daude egun Euskal Preso Politikoen Kolektiboan. Horietatik sei azpeitiarrak dira. Beste bi azpeitiar deportatuta daude eta bat ihesean.

PRESOAK.

Iker Iparragirre. Bois D'Arcy (Frantzia).

Joseba Seguro. Osny (Frantzia).

Juan Carlos Arruti Paterra. Kordoba (Espainia).

Xabier Etxeberria Txapi. Soto del Real (Madril, Espainia).

Jabi Agirre. Aranjuez (Espainia).

DEPORTATUAK.

Iñaki Etxarte. Kuban deportatua.

Maria Angeles Artola. Venezuelan.

IHESLARIA.

Juan Manuel Bereziartua Pakea.✱

naren bezperan kartzelara bisitan joan zenean. Izan ere, Frantziako espetxeetan presoarentzat generoz betetako bost kiloko pakete bat sartzeko aukera izaten da Gabonetan. “Derrepente ailegatzen zara bost kiloak osatzera”, adierazi du Galarragak: “Jaki goxoak preparatu dizkiogu: txipiroiak, bakailaoa, piper beteak, gazta, txorixoa, babarrunak... Kilotan zerbait pasatu ginen eta funtzionarioek paketea pisatu zutenean, generoa kenduarazi ziguten”. “Guk aurten halakorik ez dugu, gurea Espainiara eramanez zuten eta han horrelako ezer ez dago”, dio Etxeberriaren amak: “Guk lau urtez eman izan diegu paketea eta aurten ematerik ez dugunez, faltan botatzen da. Iraila alderako hasten ginen zer sartu pentsatzen eta beraiek ere ilusioz jasotzen zuten”. Oparien kontu horretan “trapan bat edo beste” egin izaten zutela kontatu du Jauregik: “Badira familiakoekin harremanik ez duten preso sozialak, eta haien izenean beste bost kilo sartzen genituen, ondoren beraien artean banatzeko”.

Etxeberriari ere irribarrea atera zitzaion, abenduko azken asteburuan amaren bisita



Juanita Jauregi eta Izaskun Galarraga, Xabier Etxeberria *Txapi* eta Iker Iparragairre euskal presoek amak.

jaso zuenean. “Bisitarik gabe hiru hilabetez zigortuta eduki naute, aurrez-aurreko batean semeari ogitarkeko bat pasatzen harrapatu ninduten-eta”, adierazi du Juanita Jauregik. “Berez, hil honen 13an bukatzen zitzaidan zigorra, baina tuntun plantan nire txartela erakutsi nuen eta arazorik gabe sartu nintzen”. Bera zigortu zuten egunean “egundoko presioa sumatu” zutela eta beste bi-hiru preso komunak senideak ere bisitarik gabe utzi zituztela kontatu du: “Negar batean irten zuten haiek, eta nik neurekiko nion, ‘nik hauen [funtzionarioen] aurrean negar egin, ezta zoratu ere! Zigorra, ba, zigorra’”.

Senideei ukimenezko miaketak

Euskal Herriko ehunka familiak bezala, Etxeberria eta Iparragirreraren senide eta lagunek astero ehunka kilometro egin behar izaten dituzte haiek bisitatzeko. Azkenaldian, gainera, espetxera iristean, ez dakite bisita izango duten ala ez. Funtzionarioek ukimenezko miaketetara behartu nahi izaten dituzte presoak senideak, eta ondo asko dakite beraien duintasuna mantendu nahi badute zer ondorio izan dezaketen. Alegia, bisita galdu dezaketela. Galarragaren esanetan, “errepresioan

beste pauso bat gehiago da, gure semeen argazkiak galarazi eta Etxerat legez kanpo utzi nahi izatea bezala. Miaketekin komunikazioa moztu nahi dute, familiakoak umiliatu eta geure artean –gurasoen, familiakoak eta presoak artean– sua piztu, diferentziak sortu”. “Errepresio bide horrekin” presoari “kanpoko informazioa ematea moztu nahi” dutela dio Jauregik: “Hainbeste borroka eginda gero, pauso txiki-txiki batzuk iritsi eta, orain, haiek nahi dutelako berriz atzera egitea ez dugu onartzen. Presioa egin eta egin ari dira. Geure artean haustura eragin nahi dute, baina gure borroka hor dago”.

Semeekin horretaz “asko hitz egin” dute Jauregik eta Galarragak, eta garbi dute miaketa horien aurrean zer jarrera mantenduko duten. “Horretan ez gara eroriko, ezta pentsatu ere!”, dio Etxeberriaren amak. Iparragirreraren amaren esanetan, “pertsona bakoitza desberdina da, baita preso bakoitzaren egoera ere. Baina, egoera normal batean, hor ez da amorerik eman behar”. “Ezta gutxiago ere!”, gaineratu du Juanita Jauregik: “Umiliazioa da. Beste guztien artetik zu hartu eta beste gela batera eramatea... Niretzako umiliazioa horretatik hasten da; baita gela horre-

tara eraman eta ezer egin ez izanda ere. Batzuk esaten dute ‘baina, hauxe bakarrik egin dit, gainetik ukitu’. Hori ez. Edo, denok edo inor ez. Klase guztietako pertsonak ikusten dituzu eta, denen artetik hartzen zaituzte eta esaten duzu, ‘ni zergaitik?’. Ni pasatuko naiz pasatu behar den lekutik, baina gehiago ez”.

Semea bisitatzeraz joan eta beraien familiak miaketak egiten saiatu izan direla salatu du Jauregik: “Alaba, senarra eta bi umeak *vis a vis*-era joan ziren batean miatu egin nahi izan zituzten. Horren aurrean zer egin, artean jarrera bat finkatu gabe zegoen. Ustekabean harrapatu zituzten, umeak ere miatu baitzituzten. Salaketa jarri zuten, baina horretarako ere paperak eskatu eta oztopoak besterik ez zizkieten jarri. Orain, ia, jarrera finkatuta dago. Gureak ezustean harrapatu zituzten”. Etxeberriaren amak kontatu duenez, abenduaren hasieran, “alabak aurrez aurrekoa zuen bere anaiarekin, baina bisita normala egin zuen. Horretatik ez zela pasatuko esan zuen. Gainera, umeekin joaten da, eta umea elbarria duenez, kotxe-kapota bereziarekin sartu behar izaten du. Hari gurpilak eta denak miatuko zizkioten!”.

Bide horretatik “alferrik” ari direla dio Gala-

►ragak: "Hemen jendea gogor dago. Urte askotako borroka daramaki jendeak. Orain artean mila erataria egin izan da borroka eta gauza horiek erakusten dute beste bide berri batzuk egiten eta elkar gehiago batzen. Hori, dudarik ez egin".

Presoen senideak ukimenezko miaketetara, momentuz, Espainiako presondegieta behartu dituzte. "Horrelakorik oraindik ez", baina Frantzia gauza asko ari dela "kalkatzek" adierazi du Jauregik: "Lehen egiten ez zituenak orain egiten ditu. Frantsesak oso edukatuak dira, enfrentatuko ez zaizkizunik, baina atzetik emango dizutenak. Espainolak baino frantsesak beraiek txarragoak dira. Espainola badakizu nondik datorren, aurretik, eta zuk, orduan, aurre egiten diozu. Baina, frantsesak engainatu egiten zaitu. Faltsuak dira. Eta faltsua askoz ere txarragoa da brutoa baino. Brutoa garbiagoa da, zentzu horretan".

Dispersioak kondenatuta

Semearekin minutu gutxi batzuk egoteko bidean ehunka kilometro egin behar izaten dituzte. Jauregik adierazi duenez, "egoera normalean bidaia arriskutsua bada, negu partean zer esanik ez. Eguraldi txarra denetan, semeak deitzen digu eta bisitan ez joateko eskatzen digu. Beldurak akabatzen egoten dira beraiek eta baita gu ere. Egin egin behar da, joan behar da, baina lau orduko bidea kalkulatzek dugu 40 minutuko bisita kaskar bat egiteko". Etxeberriak astean behin izaten ditu bisitak; Iparragirrek, berriz, astean hiru ditu. Galarlagaren esanetan, "normalean asteburuan" joaten dira eta "posible izanez gero, tartean behin, aste barruan".

Bisitak antolatzeko "familikoengandik eta

|||ZENBAKITAN|||||||

443

kilometrora etxetik.

2009ko maiatzean Frantzian ezarritako zigorra bete ostean, Espainiaratu eta Soto del Realen dago epaiketaren zain. 2001ean ihes egin eta 2003ko urtarrilaren 17an atxilotu zuten Frantzian. Fresnesen prebentibo egon zen bi urtez. Gero, Muret (2004-10-20) eta Muret Seysses (2009-03-31) kartzeletan egon izan da.

910

kilometrora etxetik.

Iparragirre Bois d'Arcyn (Frantzia) dago epaiketaren zain. 2005ean egin zuen ihes eta 2007ko uztailaren 26an atxilotu zuten.

5

kg. Frantziako espetxeetan presoarentzat bost kilo genero sartzeko aukera izaten da Gabonetan.

5

minutu. Etxeberriak astean bost minutuko zortzi dei egin ditzake. Iparragirrek, berriz, ez du telefonoz deirik egiterik, epaitu gabe baitago, prebentibo.

40

minutu. Etxeberriak 40 minutuko bisitak ditu; Iparragirrek ordubetekoak. Frantzian aurrez-aurreko bisitarik ez dute. Denak bisita arruntak dira, baina Espainian ez bezala –han bisita arruntak kristalak banatuta dira– presoak eta bisitarien artean inolako oztoporik gabe.✘

lagunengandik laguntza handia" jasotzen dutela dio Juanita Jauregik: "Bisitei dagokienez, Frantziako espetxeetan 20-25-40 laguneko zerrenda izaten du preso bakoitzak; Espainian, berriz, familiak eta beste hamar lagunek bisitatu dezakete. Gero, zerrenda hori sei hilabetero berritzen da". Espainian bisiten zerrenda "oso mugatua" dela dio Galarlagak eta egoera hori "oso gogorra" dela. "Hamar lagun horiek ardura handia hartu behar izaten dute eta oso zaila da", adierazi du Jauregik: "Askotan oso bortitza da. Bisitan sarri joan behar dutela ikusten duzu eta horrek duen arriskua, gastua eta ematen dizun lotura ikaragarriak dira. Nolanahi ere, herri mailan sekulako laguntza jasotzen dugu".

Etxeberria Madrilgo (Espainia) Soto del Real espetxean dago; Iparragirre, berriz, epaiketaren zain, prebentibo, Frantziako Bois d'Arcyn. "Auskalo noiz epaituko duten, sei urtera luzatu daiteke. Baina, lasai dago. Ikerrek esaten duena da, prebentibo dagoenez, epaitu bitarte horretan, bestelako hobekuntzak, kakotx arteko hobekuntza horiek, galtzen ari dela. Epaitu artean telefono deirik ezin du egin, esaterako", adierazi du Galarlagak. Prebentibo edo epaituta egon, "kristoren aldea" dagoela dio Jauregik, eta epaitu artean "Frantziako espetxeak Espainiakoekin alderatuta, askoz ere gogoragoak" direla: "Frantzian epaitu artean presoak ziegan askoz ordu gehiagoz edukitzen dute; egunean igoal egiten dituzte 22 ordu; gero, behin epaituta, askatasun gehiago izaten dute".

Beraien semeek "oso latza" den bidea hartu zutela diote bi amek. "Beraien bizimodu eman dute, beraien idealengatik", dio Jauregik. "Ea zein gazte dagoen prest horretarako". Bi amak ez daude amore emateko.✘



KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62



arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik



aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

**- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA**

Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net



ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA



AZPEITIKO ERAKUSLEIHO
HANDIENA JARRI PUBLIZITATEA UZTARRIAN

uztarria

AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

JOSE ANTONIO ARANAGA

Atcore transplantatuen elkarteko kidea

“Gazte jendeak hobeto erantzuten du”

2005etik bihotz berria dauka, baina lehenagotik zen bihotzeko eta biriketako transplantatuen elkarteko kide. Orain ere emaila bila jarraitzen du. 📧📧 Mailo Oiarzabal

Bi bihotzeko zazpi hilabeteren buruan. 39 urterekin. Bi bihotz puska “matxuratu-ta”; gainerakoa indartsu baina, urteak aurrera joan ahala, nahikoa ez eta bihotz berria, gorpuzterako motore berria behar. 66 urte bete bezperetan egin zioten transplantea Jose Antonio Aranagari. Orain dela lau urte eta erdi jaso zuen hainbeste itxaroten eta behar zuen deia.

Nola gogoratzten duzu dei hura eta ekarri zuena?

2005eko ekainaren 17an izan zen, iluntzean. Sanjuanetako pilota partidak ikusten jarri nintzen, telebistan, eta telefonoa. Emaztea erderaz hitz egiten entzuten nuen. Beti geunden, telefonoaren zain. Aldatu, eta martxa, Santan-

derra. Txaitoren semeak [Antonio Aristik] eraman gintuen, ipurdiko mantsoagatik. Anbulantziari deitu eta zain egon beharko genuela esan ziguten, ordu erdi edo, eta ahal genuen azkarrena joateko abixua jaso genuenez... Egin beharra zegoen, eta kito; ondo ateratzen bada ondo, eta gaizki ateratzen bada, gaizki. Ekainaren 18ko goizeko hiruetan sartu ninduten kirofanoan. Gogorra da, baina lasai egon nintzen, harritzekoa bada ere. Ohean sartu eta zain egon behar izan nuen, gela batean; neuk galdetzen nion erizainari, ‘beno, niretzako al da hori [bihotza] ala zertan gara?’. Han gehiago ere egongo ziren ba, seguruago, zain, bihotza bateragarria al zuten ala ez.

|||DATUAK|||||||

|||Jaio. 1941eko uztailaren 20an.

|||Herria. Urrestilla. |||Bizi tokia. Urrestilla. |||Lanbidea. 39 urterekin hartu zuen erretiroa, zazpi hilabeteren barruan bi infartu jasan ondoren.

Zenbat orduko ebakuntza izan zen?

Goizeko hiruetan jaitsi eta, ez dakit, zazpiren bat ordu-edo izango ziren. Esnatu eta emazteari eta koinatari egin nien aurreneko galdera, ‘Eibarrek zer egin du?’ izan zen.

Seinale ona, ezta?

Urte hartan Eibar Lehen Mailara igotzekotan zebilen. Eta nik Eibarrentzako sinpatia beti izan dut.

Transplantearen zain zerrendan ez zenuen denbora asko egin. Hori al da ohikoa?

Zortea izan nuen. Batzuek denbora gehiago egiten dute zain, eta batzuk zain daudela hil egiten dira.

Noiz sartu zinen Atcoren eta zer egiten duzue?

Urte mordoa dira ja elkartean sartu nintzela, transplantea baino dezente lehenagotik. Emazteak lehengusu bat dauka, transplantea egindakoa, eta harekin asko ibili zen; haren bidez sartu ginen. Transplantatuen elkarte bat da, bihotzekoak eta biriketakoak; baina oro har era horretako arazoak dituen jendea ibiltzen gara bertan, transplantea jasotzeko zain daudenak eta ez daudenak. Gure misioa da, gehienbat, emailak biltzea. Urtean zehar bi kanpaina egiten ditugu, bata aben-



duan —uste dut Barnard doktoreak lehen bihotzeko transplantatea egin zueneko urteurrenarekin bat egiten duela— eta bestea maiatzekainean. Herri gehienetan ibiltzen gara, mahaia kalera aterata, emaila egin nahi duenari aukera emanez.

Jendeak ondo erantzuten al du?

Gogorra izaten da batzuetan, batzuk ateraldi zelebreak ere egiten dituztelako. Gazte jendeak hobeto erantzuten du normalean. Pixkat urteetan aurrera dijoaztenek eta, 'nireak ez dit balioko' esaten dizute, baina hori medikuek erabakitzen dute; aitzakia bezala botata 'toma' egiten dute askotan. Beste batzuk, berriz, negozioa egiteko gabiltzala botatzen dizute.

Ezjakintasuna, agian?

Bai, baina min hartzen duzu, gauza horiekin. Baina jarraitu beharra dago, horrelakoak egiten.

Gazteek heriotza urruti ikusten dutela eta gauza horiekin ez direla kezkatzen esaten da ba, ezta?

Gehiena gazteak inguratzen dira. Askok, joaten dira esanez gogoazuukatela emaila egiteko, baina ez zekitela nola egin. Jendeak ondo erantzuten du, eta gehiena hemen, Gipuzkoan; koskarekin, gainera. Mugitu ere, uste dut gehiena hemen mugitzen garela; Bizkaian eta Araban-eta gutxiago egiten dute. Mahaia jarri eta eserita gelditzen bazara, zaila da. Gu parean harrapatzen ditugun guztiengana gerturatzen gara, eta azaldu eta saiatu.

EAE da emaila kopururik handienak dituen lurraldeetako bat, mundu mailan. Zergatik dela esango zenuke?

Hemen jendea kontu horietarako prestatuagoa dagoela, iruditzen zait niri. Mentalitate hori, kontzientziario hori, badu hemengo

jendeak, eta batez ere Gipuzkoan. Gero, saiatu ere gehiago egiten garela uste dut.

Familien kontrako jarrerak zertxo bat gora egin du azken urteetan, hala ere.

Bai, hala esaten dute, bai. Azken batean, azkeneko hitza familiak dauka, zuk emaila karneta izan arren. Emaila karnetarekin zure borondatea ikusten dute, eta normalean hildakoaren borondate

hori errespetatzen dute familiek, baina erabakia haiena da.

Zer esango zenieke, kontrako jarrera erakusten dute-nei?

Zer esango nieke ba? Pentsatzeko. Lehen esan dudana abendu kanpaina horretan, Bihotzaren Astea, pelikula bat botatzen digute aurrena, hitzaldiaren aurretik. Film horretan, guraso batzuei semea hiltzen zaie istripu batean eta medikuei ukatu egiten dizkiete semearen organuak. Gero gertatzen da, handik pixkatera, aita bera bihotzeko arazoekin hasten dela, eta berak bihotza behar. Orduan konturatzen dira zer egin zuten, zer hankasartze egin zuten. Orduan, hori esango nieke, pelikula horretan kontatzen duten istorioan pentsatzeko. Nik pelikula hori daukat gogoan, adibide hori jarriko nieke.✕

“uste dut gehiena hemen, gipuzkoan, mugitzen garela”

“azkeneko hitza familiak dauka, nahiz eta zuk karneta izan”



ondo pasatu sansebastianak



||||| jaione unanue |||||



||||| leire goenaga |||||

Urte berrian zer?

Jaione Unanue. Zer moduz bukatu dun urtea?

Leire Goenaga. Bukatu edo, pasatu dun, baita bestea hasi ere. Ia zer dakarren honek.

Jaione. Oraindik oparirik jasotzen al dun hik? Gurean krisiak nabarmen jo din.

Leire. Zeozer jaso dinat, baina jasotzea baino gehiago egitea tokatzen zaidan.

Jaione. Ba, Uztarrarian laga ziguten zeozer.

Leire. Bai?

Jaione. Ikatz pila. Beti gure zain egoten ditun aldizkaria bukatzeko.

Leire. Ba, ea beraiei pazientzia laga dien. Gu seguru ez gaitun-eta aldatuko.

Jaione. Beno, hala ere hurrengo urteko intentzioen zerrendan jarriko dinagu.

Leire. Bai, beste denak bezala ez betetzeko.

Hamar eskari

Jaione. Intentzio bat aipatu dinagu. Baina, egingo al ditinagu hamar eskari urte berrirako? Horiek betetzea zailago izango dela ez dudarik egin.

Leire. Ondo zagon. Bakoitzak bosna. Hasi!

Jaione. Lehena gure Mainerrentzat. Ditxozko sententzia izan dadila azkarra eta ona.

Leire. Sansebastianetan udaletxeko bal-koian Espainiako bandera ez jartzea. Eta Patxiren argazkia udal aretoan jartzearena... Beno, Ibarretxe ez hunan guapoagoa.

Jaione. Maiatzaren 1erako niretzat eta bila dabilzan guztientzat lana. Ez gehiegi, eh!

Leire. Etxea behar duenarentzat, eta horren kontura aberasten dena, sanjuanetan sutara.

Jaione. Udan abertzaleentzat polo soberan.

Leire. Beno, eta biontzako opor ederrak.

Jaione. Urriaren 12rako errepresioa desagertzea, hemen eta bazter guztietan.

||||| **JAIONE.** “Lehena gure Mainerrentzat. Sententzia izan dadila azkarra eta ona”

||||| **LEIRE.** “Azaroaren 25ean ez gaitzezen plazan elkartu, beharrik ez dagoelako”

Leire. Azaroaren 25ean ez gaitzezen plazan elkartu, beharrik ez dagoelako.

Jaione. Datozen gabonetarako urrun daude-nak etxean egotea.

Leire. Eta eskatzen hasita, askatasuna.

Jaione. Puf. Askotxo eskatu dinagu...

Leire. Azkenaldian ohitura den bezala egingo al dinagu pourra? Leire, hauetatik zenbat beteko ditunala uste dun?

Jaione. Nik hiru.

Leire. Nik lau.

Jaione. Baina, zer zion jokoan?

Leire. Biotako batek asmatuz gero hemen idazteari lagako diogula. Zer iruditzen?

Jaione. Beste hamaika mingain? Ia inork ez gaituen lehenago bidaltzen.*



Ekin danbor hotsari

Danbor hotsen oihartzunak hartuko ditu herriko kaleak San Sebastian egunean eta bezperan. Aurten, gainera, sokamuturra San Sebastian aurreko asteburuan ere izango da.  Ainitze Agirrezabala

Danbor hotsen oihartzunak emango dio hasiera San Sebastian bezperako jaiari. Gaueko 22:15ean hasita, 21 konpainia eta Oñatzbideko gastadoren taldea kaleetan zehar ibiliko dira. Parrokiako atariaing egingo dute aurreneko geldialdia; bertan, *San Sebastian Martxa* eta *Soreasuko Sebastian* doinuak jotzeko. Ondoren, gauerdia iristean, talde guztiak plazan bildu eta udaletxe-ko balkoian bandera igotzeko.

San Sebastian egunean, haurrak izango dira protagonista. Eguerdiko 12:30ean aterako dira taldeak kalejiran, Aranetik eta Artzubiati abiatuta. Aurtengoan, karrozaren gaia *Azpeitia, 700. urteurrena* izango da eta bertan joango den erregina Itsasi dantza taldekoa izango da.

Gauerdian, festei bukaera

III DATUAK

III **Zer.** Sansebastianak.
III **Eguna.** Urtarrilak 19 eta 20 (asteartea eta asteazkena). III **Ordua.** Gau eta egun. III **Tokia.** Azpeitiko plaza. III **Antolatzailea.** Azpeitiko udala eta Azpeitiko elkarte desberdinak.

emateko, bandera jaitsiko dute. Aurten bost konpainiak hartuko dute parte jaitsieran: Loiola Zahar elkarte estreinekoz aterako da.

Sokamuturraz gozatzen San Sebastian aurreko asteburuan hasiko dira zaleak. Urtarrilaren 17an, igandean, zezena aterako dute kalera. San Sebastian egunean, berri, eguerdiko 12:00etan eta arratsaldeko 16:30ean aterako dute.*

III SANSEBASTIANAK

22

talde helduen danborradan. Mila lagunetik gora irtengo dute, 22:15ean Olazko Amaren plazatik irtenda.

5

talde bandera jaitsieran. Txalintxo, Arauntza, Sanjuandegi, Izarraitz Txoko eta Loiola Zahar taldeak.*



Itsasi dantza taldeko danborjoleak, San Sebastian eguneko haurren danborradan.  Nerea Uranga

III BESTERIK

1

Elbarrituen argazkiak ikusgai

Behobia-Donostia elbarrituen lasterketako argazki bilduma ikusgai izango da, Kemen elkartearen eskutik.

III **Eguna.** Urtarrilak 8tik 18ra.

III **Ordua.** Astelehenetik ostiralera 18:00etatik 20:00etara. Asteburuan: 12:00etatik 14.00etara.

III **Tokia.** Betharram Aretoa.

III **Antolatzailea.** Kemen, Euskadiko Elbarri Fisikoen Kirol Elkarte.

2

Ikasberri K. E. XII. Krosa

Hil honen bigarren iganderako antolatu du Ikasberri Kirol Elkarteak XII. Krosa. Parte-hartzaileek luzera desberdineko ibilbideak egingo dituzte. Garrantzi handia du krosak Ikasberri Kirol Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen kirol ekitaldien baitan.

III **Eguna.** Urtarrilak 10 (igandea). III **Ordua.** 10:15ean hasita. III **Tokia.** Goenako kanpa. III **Antolatzailea.** Ikasberri Kirol Elkarte.

3

Pirritx eta Porrotx pailazoak

Umeen gozamenerako Pirritx eta Porrotx pailazoak ikuskizuna emango dute Azpeitian.

III **Eguna.** Urtarrilak 30 (larunbata). III **Ordua.** 17:00
III **Tokia.** Izarraitz pilotalekua.
III **Antolatzailea.** Uztaro Haurreskolak antolatuta.*

III **Azpeitiko ekimenez informazio gehiago:** uztarria.com/agenda

|||BLOGAK / ARGAZKIA|||||||



▲BASO SORGINDUA.

Edozein urtarotan ere ederra da Urbasa, baina udazkenean argazki eta natura zaleen paradisu bihurtzen da bere zuhaitz, orbel eta koloreak direla eta. Argazki hauek Baso Sorgindurako bidean aterata daude. |||||juan joxe agirre|||||

|||EFEMERIDEAK|||||||

1656

Multa. Nuarbeko Martin Etxaniz tabernariak 500 marai ordaindu zituen, agintariek salneurria jarri gabeko ardoa saldu zuelako.*



Joxe Agirrerren lau bertsoak.*

|||INKESTA|||||

Baserritarrez jantziko zara Santotomasetan?

Bai. %62,6.

Ez. %34,96.

Ez dut oraindik erabaki. %2,44.

|||Oraingo galdera. Bertan merkataria elkartearen txartela atera duzu?

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||‘azpeitia’ atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai |||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero **7.000** orrialderen bisita



||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

A	K	A	T	A	P	A	R	A	R	A	T	●
R	A	I	U	Z	●	N	U	A	K	E	L	●
●	I	A	Z	T	A	●	S	A	K	●	●	●
I	Z	I	●	R	A	S	A	T	A	L	B	●
R	●	U	E	Z	●	I	A	L	Z	●	●	●
A	R	A	H	●	A	T	U	A	K	E	B	●
●	A	K	A	S	R	A	R	A	H	●	D	●
A	L	A	O	N	O	R	K	●	●	●	●	●
K	A	N	O	N	U	G	L	A	●	●	●	●
●	G	●	H	●	L	●	K	●	●	●	●	●

HITZ GURUTZATUAK

A	K	A	R	R	A	R	A	R	A	I	A	U
A	●	●	O	K	E	B	Z	U	●	●	●	●
E	Z	O	B	I	Z	●	●	G	A	●	●	●
R	A	S	A	L	●	●	●	A	R	●	●	●
O	A	R	●	Z	●	N	●	C	A	E	●	●
E	A	E	●	U	A	●	●	N	E	G	●	●
R	●	●	A	E	M	●	●	O	T	E	●	●
A	I	A	●	S	E	●	●	C	E	●	●	●
A	K	U	A	T	U	A	●	B	O	K	●	●

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Urtarrilak 20 (asteazkena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Larchago upategiko ardoak ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN ABENDUKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



ATEA FALTA DA



IRABAZLEA



Lurdes Etxaniz Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 113. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta eraman du etxera, sari gisa. Argazkian, Lurdes Etxaniz, saria eskuetan duela.



Odriozola Ardoetan



Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008
GETARIAKO ELKANO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Urteko ardo berria, bodegako mahatsik onenarekin egindakoa.

Sukaldeko jarduna

Sendagile bezala, etxeko sukaldean istripuren bat izandako haur asko artatu izan ditut. Sua eta beroa sukaldeko ezaugarri nagusiak direnez, hasi gaitezen horiekin. Urtero erreduraren bat izan ez duen etxerik ez dut ezagutzen. Gehienetan arreta faltagatik gertatzen dira. Zartaginek, lapikoek... berehala sortzen dituzte erredurak eskuetan, baba mingarriak azalduz. Arazo horren aurrean hau egin behar dugu beti:

- Ez putz egin erretako lekuan.
- Beste lanetarako erabilitako trapuekin ez igurtzi edo estutu erredura.
- Kanileko ur-zorrotadaren azpian jarri erretako gunea.
- Ondoren, gasa edo tiritarekin estali, erredura atzamarrekin ukitu gabe.
- Pusla edo baba azaltzen bada, onena ur berotutako orratz esterilizatu baten bitartez zultzea da, barruko plasma ateratzeko. Ondoren, zerbaitekin estutu edo estaltzea aholkatzen da. Zenbat eta aldi gutxiagotan aldatu gasa, emaitza hobea izango da.
- Olio beroaren tantaren bat begian sartu zaigun susmoren bat badugu, ez dudarik egin. Sendagile baten kontsultara joan.*

|||||||julian bereziartua|||



SORKUNDE URBISTONDO pintura saltzailea



1. Modako kolore bat?

Grisa eta beste kolore baten arteko nahasketa.

2. Modaz pasatutakoa?

Kolore horia.

3. Hormetarako, zer?

Paper pintatua eta pegatinak.

4. Etxean zer kolore ez zenue inoiz erabiliko?

Ospitaleko kolore berdea.

5. Etxea zer garaitan pintatzen du jendeak?

Udaberritik negura.

6. Fatxadarako zer kolore duzu gustuko?

Adreilu kolorea.

7. Kolore aukeraketak bezeroaren izaera islatzen al du?

Jendeak moda segitzen du.

8. Bitxikeriarik bai?

Gorringo koloreko margoa nahi zuela eta arrautza egosiarekin etorri zen bat.*

✂ Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jone de Arrese, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

AZKOITIA

ERLOJU KONPONKETAK

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40

Ekain
ALBARTARI KLINIKA

Larrialdia: 943.15.16.40

ORKATZ KULTUR ELKARTEA

PEUGEOT

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

uztarria

domusa

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Antonio Rafaniello

HORTZ KLINIKA

Marcelo Borlle
Kolegiatu zk. 390

Enparan kalea, 8 - 1.
Telef. 943 81 67 36
AZPEITIA

Astelehenetik ostiralera

9:30 - 13:00
15:30 - 19:30



Kimubat 
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...



Festaren herri izaera

Hamar urte dira haurren
danborradarako azken
karroza egin zutela.
Egindako lana ez
dute saltzeko. 🐣🐣

Nekane Zinkunegi

Mende erdi baino gehiago, Azpeitian sansebastianetan danborrada egiten hasi zirenetik. Urte kopuru bera igaro zaie bere garaian karrozak egiteari ekin zion Inazio Agirreri eta ondoren aitari laguntzen hasi zen Mari Karmen alabari; bost hamarkadatik gora danborrada bizitzen. Herriarengatik eta herriarentzat lan egin dute karrozak eginez Edertikoe eta poz eta satisfazio handiz dakartzate gogora beren jardunaren gorabeherak.

Pintura eta arte zalea izan da betidanik Ina-

zio Agirre, antzerkietarako dekorazioaz ere maiz arduratu izan dena. Zaletasun handia izan du gauzak sortu eta apaintzeko; sansebastianetako danborradarako karrozak egiteko pertsona ezin egokiagoa, beraz.

Hastapenei bueltaka hasita, Cecilio Arabaolaza eta Baltasar Iglesiasen izenak agertzen dira lehendabizi, Azpeitira danborrada ekarri zuten bi apaizenak. Dirudenez, erregina behar zuen danborradak eta erregina garraiatzeko zerbaiten beharra zegoen. "Buruari buelta batzuk eman ostean, Miserikordian

bazirela idi batzuk gogoratu nintzen", dio Inaziok. Eta idi horiek apainguta, bateko eta beste elementuak elkartuz, lehen karroza aurrrera atera zuen. 1958. urtea zen.

Hasieran, Inazio ibiltzen zen lan horretan. Gerora, Mari Karmen alaba izan da aitarekin batera karrozen diseinuaz eta egituraketaz arduratu dena. "Hasieran orain Enparan kalean dugun denda tailerra ere bazen, eta aita hor hasi zen karrozak egiten. Gerora, hau eta beste hainbat leku tartekatzen genituen", kontatzen du Mari Karmenek. Denbora luzez

Agirretarrak izan ziren karrozak nolakoa behar zuen erabaki eta karroza egin, egiten zutenak. Gerora, ordea, herriko gremioei lana ematea pentsatu zuten: “Karrozaren diseinua gure esku geratzen zen eta egin herriko arotzek, pintoreek-eta egiten zuten”, azaltzen du Edertiko alabak. “Lan hori egin duen jendearen prestutasuna izugarria” izaten zela azpimarratzen du, bere aldetik, Inaziok.

Ardura handia

Hamaika aldiz goizeko ordu txikiak iristen zitzaizkion Inaziori, karrozan lanean. “Eguneroko lanari gehitu beharreko zerbait zen”, dio. Lana ez zen, baina, karrozak egitearen gauzarik zailena. “Jendeak uste ez duen arren—dio Mari Karmenek—, ardura handia eta zaila da geure gain hartu izan duguna”. Bere hitzetan, “ez baita erraza” herri guztiari ondo irudituko zaion gai bat pentsatzea, eta zailagoa oraindik jendeak karroza ikusi orduko zeren inguruan egin den antzematea.

Hogeita hamar karrozatik gora egin arren, inoiz ez dute beren esku-lanagatik ezer kobratu. “Behar genituen materialen kostuak Udalaren kontu ziren, baina gainerakoan ez dugu inoiz zentimorik ere eskatu”, dio Mari Karmenek. “Herriaren alde hainbeste egin beharra” dagoela uste du Inaziok: “Ni azpeitiar peto-petoa naiz eta poz handiz egin izan dut lan hau”.

Danborrada, herritartasuna

Danborradak izan duen bilakaeraren balorazio positiboa egiten dute aita-alabek. Mari Karmenentzat aberasgarria izan da haurren pate-hartzea karrozan: “Hasieran erreginak eta damak ziren karrozetan irteten zirenak; gerora, neska-mutilek hartu zuten leku hori eta niri askoz gehiago gustatu zitzaidan



1. Lehenengo karroza, 1958koa, Amparo Urdalleta ‘erregin’ zela.
2. Edertikoek egin zuten azkena, 2000. urtekoa eta urteari eskainitakoa. **3.** Azpeitiko jaiak eta idazleak izan ziren 1974koaren gaiak.

Herria eta beste

III Azpeitiko kontuak edota momentuan pildan zeuden gaiak jorratzen saiatzen ziren Edertikoak karrozetan. Gogora ekarri dituzte herriko festa nagusiei, Loiolako Herri Irratiari, Joxe Migel Barandiani edota euroari eskainitakoak.

“Errege ondorena arte” inoiz ez zuen ideia garbi izaten Inaziok. “Ez da erraza denei ondo iruditzea, baina horretan ahalegindu gara”, dio Mari Karmenek.

idea”. Lehen “nesken arteko konpetentzia” egoten zela uste du, baita ondoren jendearen artean esamesak ere. Inaziok, berriz, “danborrada hazi” egin dela dio, eta “erabat pozgarria” da hori beretzat: “Poz ematen dit danborradak lortu duen garrantzia ikusteak”.

Halaxe deskribatu digute aita-alabek danborrada hitz batean: “Herritartasuna”. Etxetik bat baino gehiago atera arren, Inazio eta Mari Karmen Agirre ez dira inoiz danborradan irten; danborradari eginiko ekarpena hain pozik bete duten karrozen egitekoa izan da.✳

ANA MARI TABERNA

- > Asteburuko menua 25 euro (edariak, kafea... barne)
- > Urritik aurrera, enkarguz, babarrun janak
- > Kuadrilentzat menu bereziak

Kale Handi, 1 **URRESTILLA** Tel. 943 15 75 91



TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (URTARRILA)

EGUNEZ

1-2-3-8-11-12-13-14-15-22	4-9-10-21-26-29	5-16-17-20-27
Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811 350	943 811 949	943 815 974

GAUEZ

1-2-11-12-13-14-15	3-25-26-27-28-29-30-31	16-17
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811 350	943 811 274	943 815 974

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urtarrilaren 27an izango dute hitzordua, 18:00tik 21:00era, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



TAXI ZERBITZUA.

Bederatzi taxi-gidarik egiten dute lana Azpeitian. Hara edo hona mugitzeko taxia hartu behar izanez gero, Jose de Artetxe kalera joan edo 943811307 telefono zenbakira deitu behar da.

6-18-23-24-28	7-19-25-30-31
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 811 274	943 080 258

4-9-10-22	5-18-23-24
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 852 989	943 851 235

6-7-19-20	8-21
Ruiz (Azkoitia)	Jaen (Azkoitia)
943 851 966	943 850 660

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

JULEN AGIRREZABALAGA

Elkar taldeko Plazagunea S.L. enpresako kidea

“teknologia honek gain hartuko dio paperari”

Liburu elektronikoek “kristoren jauzia” eman eta papera “luxuzko artikulu” bilakatuko dela dio. 📎 Ainitze Agirrezabala

Irakurleak kuriositatez hartu al dik liburu elektronikoa?

Azokako nobedadea gintunan eta jende guztia guregana etortzen hunan. Azokan liburu elektronikoak saltzea debekatuta zagon eta, hortaz, standean teknologia hau jendeari erakustera mugatu gaitun.

Zertan habil hi, zehazki?

Plazaguneako kide bezala, besteak beste, Elkar taldeko lau argitaletxeren liburuak formatu digitaletara egokitzen ari gaitun, *ePub* eta *Mobipocket* formatuetara hain zuzen.

Zer berezitasun ditik liburu honek?

1.500 liburu sartzen ditun; leku aurrezte garrantzitsua dun hori. Tinta elektronikoa deritzon teknologia erabiltzen ditin, eta beraz, irakurtzeko erosoak dun, ez din argirik igortzen eta papera bezala, kanpoko argia behar dun leitzeko. Letra tamaina norbere beharretara egokitzea zagon, bilaketak egin...

Euskarazko liburu digitalen eskaintza zer-nolakoa duk?

Momentuz murrizta. Elkar eta Alberdania argitaletxeek egin dutena bakarrik. Elkarren katalogo digitaletan 56 liburu zauden, horie-

tatik euskaraz 36; Alberdania 25 inguru.

Euskaraz zein liburu zeudek?

Londres kartoizkoa da, New York-Bilbao-New York, Aulki jokoa, Fatum, Ingelesen hilerria eta Habitat, besteak beste.

Zenbat balio dik e-book batek?

lazkoak 650 euro balio zitinan. Orain dugunak 250 eta 300 euro bitartean.

Eta, irakurtzeko liburu bat erosteak?

Bataz beste liburu fisikoak baino %30 merkeagoa dun digitala. www.elkar.com edo hantzeko guneetatik eros ditzaken liburuak formatu hauetan.

Zer jendek erosten dik, batez ere?


laz saldutako liburu digitalak jende profesionalak erosi zitinan. Aurten, edozein motatako irakurleen artean asko ari dun saltzen.

Heuk ba al duk liburu elektronikoa?

Ez. Papera nahiago dinat.

Paperarengan zer ondorio izango dik?

Auskalo... nire ustez konbibentzian izango ditun, baina paperak oraindik urteetako bizia din. Teknologia honek kristoren jauzia eman go din urte gutxitan eta gain hartuko zion paperari. Baina, papera ez dun desagertuko.✖



1. Julen Agirrezabalaga e-book-arekin.
2. Liburu elektronikoa. 3. 'Bilbao-New York-Bilbao' eta 'Habitat' liburuak, e-book-ean.



Gaur ni bihar zu

Santu guztien eguna baino lehen bisitatu nuen ospitalean, astegunez. Sartzeko eragozpenik inork jarri ez, gela zenbakia galdetu eta barrura. Gaitzak jota zetzan Txagorritxuko ohean. Alaba zuen ondoan. Handitua aurpegia, hazia zuen masaila. Abuztu amaieraz gero omen zuen. Ez zen dentistaren kontua ere. Terapia gogorragoak, terapiarik gogorrenak, erabiltzekoak ziren bisita egin nion egun hartan bertan. Are, momentu hartan bertan.

—Ezagutzen haut hi —erizainak, niri.

—Ni? —zeharo harrituta lehenengo, nire idazlanen entzutea hari ez zaiola ailegatu seguru jakinda, baina arrazoia barrundatzen hasita laster—. Tira, kimioterapiari ibili gaitun gu ere joan den urte erdi honetan, eta han elkar ikusiak beharbada...

—Horixe izango duk...

Egun batzuk Txagorritxun eta etxera bidali zuten gure laguna, beste ospitale baten bidetan. Gaitza leku txarrean, toki zailean, eta mediku espezialistak operatu behar zuela, Oviedon. Etxean hiru-lau egun egin eta haraxe gure mutila... Gaitza gero eta gaitzago.

Hamahiru ordu iraun zuen ebakuntzak. “Ondo”, esan dute medikuek, alabaren esperantzak hitzak. “Dena garbitu diote. Orain hitz egiteko zailtasunak ditu, baina esan diote hilabete batzuk barru matraila behar bezala mugitzeko moduan izango duela, hizketan ondo jarriko dela”. Ospitalean egun batzuk igaro eta buelta etxera... Eta etorri dira.

Eta etorri dira, eta telefonoa jo diet berriz. Alabari. Aita gizajoak nahiko lan ibiliko duela koan. “Txagorritxutik etxera ari gara oraintxe. Autoan noa. Gero hitz egingo dugu”. Horretan utzi dut, momentuko utzi. Telefonoa hartu eta aitari berari hots egin diot. “Txagorritxutik etxera ari gara oraintxe. Alabarekin noa”. Zer moduz. Eta gaizki. “Infekzioa”, esan dit. Etxetik ospitalera joan eta etorrian dabilzala. Barruak aginduta, hirugarren senide bat deitu dut telefonoz. Infekzio konturik ez. Bertan du



|||||||miel a. elustondo|||

|||Aipatu ere ez dugu egiten gaixotasunagatik edo edade handiagatik baten batek heriotza bertan duela jakitean

gaitza berriz. “Oso gaizki. Tumorea berriz sortu zaiola esan zigutek medikuek. Gauza onik ez. Zeharo garbitu zutela, baina hor dela berriz, eta indar handia dakarrela. Ez dagoela berriz operatzerik, erradio bidez saiatuko direla. Gabonak pasatzen utzi nahi zituztela erradioterapiari ekin baino lehen, baina gaitzak hartu duen indarra kontuan hartu eta ez dagoela beste biderik. Ez dakitela ezer lortuko duten. Gaitzari eustea, horixe aukera bakarra. Panorama! Oso asunto txarra”...

Kito da

Atzera bueltarik ez dago. Ez ditu berrogeita hamar urte ere, eta kito da. Egin du gure lagunarenak. Babesa bilatu nahi izan dut. Jo dut batera. “Bizitzari benetako balioa ematen dio heriotzak”, irakurri diot kristauari. Medikuek esan dit: “Heriotza bizitzaren parte bat balitz bezala bizi dut”. “Heriotza tabua da”, esan dit apaizak: “Hartaz hitz egiten dugu, urruti duka gunean. Baina aipatu ere ez dugu egiten baten batek gaixotasunagatik edo edade handiagatik heriotza bertan duela jakiten dugunean”.

Horretaz ari nintzen. Minez. Laguna nahi nuen nik luzaro.✘





Osasun Arreta Ziurtagiria
duen Euskal Herriko
lehengo hortz klinika

iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

'zure irribarra zaintzen dugu'

www.grupohorzkari.com



eurotex

P I N T U R A K



BURINDEGIA



ELEKTRIZITATEA



BRIKOLAJEA



SEGURTASUN BABESA



Landeta Hiribidea, 8 - AZPEITIA
tel. 943 81 25 66 - mug. 607 75 88 01 - www.landetabrikodenda.com
www.eurotex.es





Bisita gaitzazu:
José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:
943 02 59 55

Reg. 01 / 00 N PUBLIC SANTAR

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTetik gora
Eskatu presupuestoa eta kontsultatu gure finantzaketa!

hortz-klínika
AZPEITIAⁿ

Ukabi
informatika

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



eskaintza ezin hobeak
zure aurrezkiak salbu
dira gurean



K50IJ-SX256V

- Prozesadorea: Pentium Dual Core Teknologia T4400 2,200 GHz
- RAM Memoria 4 GB
- Disko gogorra: 320 gb
- Pantaila: 15,6"
- Sistema Eragilea: Windows 7 Home Premium

565 euro
b.e.z. barne